

UROLAKO ITSASADARRA BABES BEREZIKO EREMUA

Itsadarrean gora, ibaiak garraiatutako materialak Oikiako alubioi-terrazak eratuz joan dira. Bertan, ibaiertzeko basoa gailentzen da, haltzak, sahatsak, lizarrak eta platano handiak dituena.

Goi-estuarioko arrain-faunak, oro har, ur gezatako arrainak ditu, hala nola, ezkailua, loina eta barboa; eta, horiekin batera, ur gaziko beste arrain batzuk, esaterako, korrokoa edo platuxa. Ur-igel arrunta edo suge gorbataduna ez dira falta.

Erriotan behera, sedimentuek lohi-uharteak eta -hondartzak eratu dituzte, marea-zikloen eta gazitasunaren menpe daudenak. Han bizi diren landareak hauek dira: itsas getozkak, itsas ihiak edo *Salicornia* aleak. Ur geza dagoen tokietan, aldiz, lezka arruntak eta lezka hostozabalak hazten dira.

Fauna-komunitatean hegazti hauek aipa daitezke: arrano arrantzalea, martin arrantzalea, espatula eta abozeta. Txirritxo txikiak Urolaren ondoko eremu harritsueta egiten du habia. Uretan, aingira edo lupia bezalako arrainak sakonera txikiko beste itsas hondoko batzuekin batera bizi dira, hala nola, arrain zapalak, barbarinak eta muxarrak.

Santiago hondartzako landaredia marearen eta lehorketaren aurkako borroka etengabe bizi da. Itsas kakilearen, itsas ezkertearen, itsas armikaren, lagurusaren eta dunetako krabelinaren lurraldea da. Dunetan intsektuak, araknidoak eta moluskuak daude, eta musker berdea ere agertzen da.

Urolako itsadarreko zenbait eremutan artadi kantauriarrak daude. Arteaz gain, basootan karraskilak, gurbitzak, arbustuak eta basagurbeak bizi dira.



Usurbiribillagako irlak



Itsas kakilea hondarrean



Artadiaren barrena